



FUNTSEZKO JARDUERAK

Diseinua eta produktu garapena

- **Pertsonalizazioa:** Bezeroen behar zehatzei egokitzeko, pisuaren, diseinuaren, materialaren edo baita gainazalaren arabera izango da.
- **Prototipoak:** Kantitate handiko ekoizpenaren aurretik prototipoak sortzea, produktuak funtzionalak eta estetikoak direla ziurtatzeko.
- **Materialen ingeniariatza:** Pisuak iraupen, erresistentzia eta estetika egokiak izan dituzten materialak aukeratzea (burdina, aluminioa,...).

Ekoizpena eta mekanizazioa

- **Metala ebaki eta formatzeko prozesuak:** Pisuaren oinarritzko piezak forma emateko ebaketa-teknikak (adibidez, torno, fresa,...) erabiltzea.
- **Torneaketa eta Fresaketa:** Pisu bakoitzak beharrezko dimentsioak izan ditzan, prozesu zehatzak aplikatzea.
- **Gainazaleko Tratamendua:** Pisu bakoitzak rektifikatu, pintatu edo galbanizatu, horrela amaiera egokia lortzeko eta korrosioaren aurka babesteko.



Kalitatearen Kontrola

- **Produktuen Ikuskapena:** Pisuak kalitate estandarrei erantzuten dietela ziurtatzea, dimentsioen eta amaieraren zehaztasuna egiaztatuz.
- **Erresistentzia Probak:** Pisuak erabilera etengabea jasateko gai direla egiaztatzea, deformatu edo apurtu gabe.

Logistika eta Banaketa

- **Inbentarioaren kudeaketa:** Materialen eta produktuen stock-a modu egokian kontrolatzea.
- **Paketeatzea eta bidalketa:** Pisuak bezeroei modu seguruan iristea, produktuen pisua eta tamaina kontuan hartuta.
- **Banaketa pertsonalizatua:** Bezeroen beharretara egokitutako bidalketa aukera eskaintzea.



Bezerearentzako zerbitzua eta salmentak

- **Kontsulta pertsonalizatua:** Bezeroei pisuen eta pertsonalizazioaren aukerarik onenak aholkatzea.
- **Marketin eta publizitatea:** Kanala lineal eta fisikoen bidez bezero berriak erakartzea eta marka sendoa mantentzea.
- **Salmenta osteko zerbitzua:** Pisuekin arazoak egon daitezkeenean bermea eta laguntza eskaintzea, eta produktuak hobetzeko iritzia jasotzea.

Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza

- **Teknologia berrien ikerketa:** Ekoizpen prozesuak optimizatzeko automatizazioa edo 3D inprimaketa bezalako teknologia berriak ikertzea.
- **Produktuen garapena:** Produktu katalogoa zabaltzea gimnasioari lotutako beste artikulua pertsonalizagarri edo osagarriak sartuz.

